

SAN JOSE KANPAINA 2018

“Zerbait berria ernetzen ari da”

Eremu teorikoa

Sarritan diote Hegoafrikako ipar-ekialdeko Sothoek: “Motho ke motho ka batho”, hau da, “pertsonek, pertsona da jendea dela kausa”. Hau da, pertsona naizela, jendartean bizi naizelako. Sotho herriak eta Afrikako hainbat herriek esperimendatzen duen gizarte indar eta kohesio hau benetako berritasuna da, indarrez beteriko berritasuna, eta afrikarra “gustura” sentiarazten du jendartean dagoenean. Hemen, autobusera igo eta erdi hutsik dagoenean, eserleku bakartua bilatzen dugu, ezezagun baten ondoan egoterik nahi ez dugula nabari ez dadin. Afrikako makina bat lekutan, oster, autobusera igo eta erdi hutsik dagoenean ere, beste norbaiten ondoan bilatzen da eserlekua, solasari ekin eta badela elkartzeko gaituen zerbait berehala antzemateko. Alde ederra!

Ahalegin bikoitza egingo dugu afrikar kontinentera hurbiltzeko bidean. Lehenengoa, Afrika bakarrik dela pentsarazten digun irudia hautsi eta, ‘afrikar dantza, afrikar txabola, afrikar jantzia, afrikar meza,...’ eta antzeko esamoldeak ekidin. Afrika 55 nazioen kolektiboa da (Mendebaldeko Sahara barne), askotariko hizkuntza, kultura, historia eta tradizio aberatsekin. Txertatzeko ahalegina izango da bigarrena, Afrikak bere lekua duelako munduan. Hau da, Afrika ez da munduaren azkena bere pobretasunagatik (beharbada, munduak berak egiten du behartsu). Afrikak ezin du ezdeus eta irrigarriaren paradigma izan. Orainsu, Espainiako politikoa ezagun batek, honela definitu zuen bere alderdikide batek beste bati zion gorrotoa: “Gorroto afrikarra dio”; zergatik ez zuen ‘gorroto europarra’ esan?

Afrika eta bere jendea

“Hara, zerbait berria egitera noa: hasia da sortzen, ez al diozue antzematen?” (Is 43, 19). Afrikak urteak daramatza zerbait berria egiten eta ordua da guk antzeman dezagun. Afrikak, azkeanldian, maila handiko pertsonaiak eman izan ditu Elizan: Santa Josephina Bahhita (Susan, 1869-1947); Marie-Clementine Anuarite Nengapeta Dohatsua (Kongoko Errepublika Demokratikoa, 1939-1964); Benedict Daswa Dohatsu martiria (Hegoafrika, 1946-1990). Baita politikan ere: Nelson Mandela (Hegoafrika, 1918-2013) eta Julius Nyerere (Tanzania, 1922-1999). Eta emakume gizarte eragileak, esate baterako, Marguerite Barankitse (Burundi, 1957), edo Literatura nobel saridunak: Wole Soyinka (Senegal, 1934) eta Nadine Gordimer (Hegoafrika, 1923-2014), batzuk aipatzearen eta asko eta asko hemen jaso gabe uzten ditugula jakinik.

Afrika eta Eliza

Elizan krisia bizi dela esateak Afrikako kristau elkarten bizitasuna ez ezagutzea islatzen du. Igandetako Eukaristiak, abadetzarako eta erlijioso bizitzarako bokazioen gehikuntza, fedearen benetako transmititzaile diren katekistak, fedea gizarte eta politika bizitzan duen eragina, Eliza biziaren erakusgarri zehatz dira. Harrigarria da hainbat lekutako gotzainen batzarrek buruzagi politikoak salatze eta ustelkeriari izena jartzeko duten amore eta ausardia. Batzuk, adibidez, Laurent Monsengwo kardinala Kinshasan (Kongoko Errepublika Demokratikoa), ezarritako agintearen aurkako mugimenduaren bultzatzailetzat jotzen dituzte, aurkako salaketa faltsuak eginez.

Afrikako Elizak mundu islamikoarekiko gatazka eta tentsio esanguratsuei aurre eginez eta elkarrizketarako bideak bilatuz egin behar du aurrera. Kristau eliza eta elkarteen aurkako erasoek Eliza martiri bihurtzen dute inguruabar askotan. Eliza helburu bigun eta erasotzeko erraza da talde armatu eta terroristentzat.

Afrika eta bere zuzentasuna

Salmoak dio: “Lagun izango ote dituzu epaile makurrak, legea mesprezatuz zorigaitza sortzen dutenak? (Salmo 94, 20). Afrikak, munduko beste hainbat kontinente eta herrialdek bezala, ustelkeriaren kontu larriari aurre egin behar dio. Kontua ez da legeak egitea, zuzentasuna ezartzea baizik. “Ardura zaitzete, batez ere, Jainkoaren erregetzaz eta haren nahia betetzeaz, eta beste hori guztia gehigarritzat emango dizue Jainkoak” (Mt 6, 33). “Larunbata gizakiaren onerako egin zuen Jainkoak eta ez gizakia larunbataren onerako” (Mk 2, 27). Zuzentasunaren urritasuna gehiegizkoa da Afrikan eta afrikar gizarte zein politikan nolabait bideratu egin behar den gaia da.

Izaki gorenaren existentzia eta izatasuna

Lehen esploratzaileek kalte handia egin zuten beraien azterlanekin, oinarri gutxi izateaz batera, aurreiritziz beterik zeudelako, ikerturiko herri eta kulturetako afrikar hizkuntzen inguruan egundoko ezjakintasunaren eraginez. Ezaguna da Samuel Baker esploratzaile britainiarraren ikerketa, 1866an Londoneko Elkarte Etnologikoari bidali zion txostenean ondorengoa zioena:

Herri hauek, den-denek, ez dute ez kredorik izaki gorenean, ezta inongo gurtza edo idolatria modurik ere. Beraien buruko ilunpeetan ez dago argirik, ezta superstizio-izpirik ere. Beraien adimena zorigaitzoko mundu horretako zingira ugariak bezain geratuta dago.

“Inork ez dio haurrari izaki gorenari buruz irakasten”, dio esaera ashantiak. Era guttiz adierazgarria da Jainkoaren existentzia ez dela ikasten edo erakusten esateko, hau da, Jainkoa badela nabarmena dela esateko era. **Afrikako herri gehienetan sinesten dute izaki gorenean** eta honi ezaugarri batzuk egozten dizkiote, baina ez era abstraktuan formulaturik –mendebaldeko teologiaren ildotik-, ekintza zehatzetan irudikaturik baizik. Jainkoa, esate baterako, “haurrak beraien amen sabelean moldatzen” dituen da, bagandek diotenez; “putz egiten duena” edo “erortzen dena”, tongek dioten bezala, Berak haizea edo euria eragiten duela adieraziz.

Jainkoa deitzeko darabilten izen propioak berak ezaugarriren bat adierazten du leku askotan. Ngombe herriarentzat, Jainkoa “oihanean betirako irauten duena” da (oihanak betierekotasuna sinbolizatzen du). Ila eta baluba herrietakoek Jainkoaren betiereko izatasuna eguzkiaren itxurazko iraupen mugagabearekin lotzen dute eta “eguzki asko dituen” deitzen dute. Zuluek “denak baino handiagoa dena” (*Baba Nkulu Nkulu*) deitzen dute edo “bizitzara bere kabuz etorri zena”.

Hizkuntzak, batzuetan, Jainkoa eta izadiko hainbat gertakari, esate baterako euria, ekaitza, eguzkia, ... bat direla ulertaraz dezake. Nigeriako iparraldean, hitz bera darabilte Jainkoa eta eguzkia izendatzeko. Hala ere, atzizkien bitartez bereizketak egiten dira. Adibidez, hau diote: “Eguzkia ilunabarrean ezkututzen da, baina Eguzkiak hor dirau

oraindik”. Maiz, hitz berak adierazten du Jainkoa eta ortzia. Baina, kasu honetan ere, hizkuntzak berak –eta ez testuinguruak bakarrik– badu bitartekorik bata nahiz bestea bereizteko.

Badaude Jainkoaren urruntasun eta helezintasuna nabarmentzen duten herriak ere. Lunda herrikoen esanetan, bere benetako izena ezin da jakin, altuegia delako guretzat eta “ezezagun” deitzen dute; Ngombe herrikoek, beren aldetik, “ezin adierazizko” deitzen dute. Akamba herriak, ostera, *Mulungu* (Jainkoa) “bakarrik dagoena” dela diote; inork ez dio erregutzen, ezta zailtasunean ere. Ez dute irudikatzen hartu-eman pertsonala izan dezakeen norbait bezala. Triburen batek Jainkoaren ideia lausotu edo zehaztugabea duela dirudi. Delako egun batean lurretik igaro zela, baina bertatik joan egin zela eta inork ez dakiela non dagoen eta zer egiten duen uste dute. Haren eta gizakien artean, tartean, arbasoak sartu dira eta hauek esku-hartzen dute giza kontuetan. Suazi herriaren ustez, noizbait Jainkoak zuzenean bere buruaren seinaleren bat emango balu, oso arriskutsua izango litzateke, hain zuzen ere, hondamendiren baten zantzutzat hartzeko modukoa.

Horregatik, Jainkoa da Afrikaren aberastasun nagusia. Afrikarren artean, ia ezin da ateismoaren kontzeptuaz hitz egin. Hain zuzen ere, kontinente osoa batzen duen Jainkoaren kontzeptua edo izaki gorenaren kontzeptua da. Jesukristo bere Semearen kristau Jainkoarengandik afrikar erlijio tradizional handien errespetuzko hurbilpenetara alde batera utzi ezin daitekeen emari erlijiosoa dago.

Afrika, Eliza misiolaria da

Frantzisko Aita Santuak eskatzen duenaren haritik, “abian” den Elizaren ikuspegian bete-betean sartzeko den alderdi hau ulertzeko, ezinbestekoa izango da elkarrekotasun-dinamikan sartzea. Dagoeneko ez gara Europatik eman egiten duen (dirua, bokazioak, osasun-laguntza, irakasleak, pastoral eragileak, nekazaritza-egitasmoak) Eliza; ebanjelizatua izatea, kanpoko pastoral eragileak behar dituen Eliza ere bagara Europatik. Bihotz-berritze eta katekesi prozesuei ekiteko katekumenotzak jarraitutasun apostolikoz aktibatu beharko lituzkeen Eliza gara. Europako gure Elizek gehiago nahasi beharko luke laiko mundua, Afrika pastoral arlo askotan egiten ari den bezala. Hau da, geure buruari sinestarazi behar diogu eta bihotzez esan behar dugu jasotzeko prest dagoen Eliza izan behar dugula.

Beste alde batetik, Afrikak erretiratu egin behar du beti eskatzeko zabaltzen den esku hori eta eskua emateko zabaltzeko gero eta gaitasun gehiago duen Eliza izan: kristau bizitasuna duten elkarrekin, apaiz eta erlijioso bokazioak, fede eta jazarpen lekukotasunak, e.a.

“Motho ke motho ka batho” delakoa, Kristo hil eta berpiztuarengan fede bera bizi eta konpartitzen duen pastoral jardunbidea da (Apostoluen Eginak 14, 21-28), eman eta jaso egiten duen Eliza gaztea; bere fedea elkartean bizi duen eta pastoral eginkizunekiko elkartasunean jarduten duen Eliza.

CAMPAÑA SAN JOSÉ 2018

“Algo nuevo está brotando”

Marco Teórico

Dicen a menudo los Sotho del noreste de Sudáfrica: “Motho ke motho ka batho”, algo así como “la persona es persona a causa de la gente”. Es decir que soy persona, porque vivo entre gente. Esta fuerza y cohesión social que experimenta el pueblo sotho y muchos otros pueblos de África, es una auténtica novedad que está cargada de fuerza y hace sentirse al africano “a gusto” cuando está en medio de la gente. Cuando subimos a un autobús aquí y está medio vacío, buscamos un asiento aislado para que no se note que queremos estar cerca de alguien desconocido. Cuando en muchas partes de África se sube a un autobús, aunque esté medio vacío, se busca un asiento cerca de alguien para entablar conversación y poder descubrir pronto que algo nos une. ¡Qué gran diferencia!

En nuestro camino de acercamiento al continente africano, realizaremos un doble esfuerzo. El primero romper con la imagen de que África es una y evitar expresiones como: un baile africano, una choza africana, un vestido africano, una misa africana... África es un colectivo de 55 naciones (incluyendo al Sahara occidental) con sus lenguas, culturas, historia y tradiciones muy variadas y ricas. El segundo esfuerzo será de integración, porque África tiene su lugar en el espacio mundial. Es decir, África no es la cola del mundo por su pobreza (quizá es el resto del mundo que la hacen pobre). África no puede ser el paradigma de lo inútil y ridículo. Recientemente un conocido político español, definía el odio que tenía un miembro de su partido hacia otro diciendo: “Le tiene un odio africano”, ¿por qué no dijo un odio europeo?

África y su gente.

“Mirad, voy a hacer algo nuevo, ya está brotando, ¿no lo notáis?” (Is. 43, 19) África lleva años, haciendo algo nuevo y ya es hora de que lo notemos. África ha dado recientemente personajes de gran talla eclesial como: Santa Josephina Bakhita (Sudán, 1869 – 1947), Beata Marie-Clémentine Anuarite Nengapeta (República Democrática del Congo, 1939-1964), Beato Benedict Daswa, martir (Sudáfrica, 1946 – 1990); políticos como Nelson Mandela (Sudáfrica, 1918-2013) y Julius Nyerere (Tanzania, 1922-1999); mujeres animadoras sociales como Marguerite Barankitse (Burundi, 1957) o el premio novel de literatura Wole Soyinka (Senegal, 1934) o la sudafricana Nadine Gordimer, premio nobel de literatura (Sudáfrica, 1923-2014), solo por mencionar algunos y siendo conscientes de los muchos que nos dejamos.

África y la Iglesia.

Hablar de crisis en la Iglesia es no conocer la vitalidad de las comunidades cristianas en África. Las Eucaristías de los domingos, el aumento de vocaciones a la vida sacerdotal y religiosa, la presencia de catequistas como auténticos transmisores de la fe, la incidencia de la fe en la vida social y política son una fiel muestra de una Iglesia viva. Sorprende el coraje que tienen muchas conferencias episcopales en el momento de denunciar a sus líderes políticos y de ponerle nombre a la corrupción. Algunos, como el cardenal

Laurent Monsengwo en Kinshasa (R.D. de Congo) están hoy siendo acusados falsamente como instigadores en contra del poder establecido.

La Iglesia en África tiene que navegar en medio de importantes conflictos y tensiones con el mundo islámico, buscando cauces de diálogo. Los ataques a las iglesias y comunidades cristianas, la hacen una iglesia martirial en muchas circunstancias. Los grupos armados y terroristas tienen en la iglesia objetivos blandos donde atacar.

África y su justicia.

Dice el salmo: “¿Podrás aliarte con un tribunal corrompido, que dicta sentencias injustas valiéndose de la ley”? (Salmo 94, 20). África, como otros continentes y países del mundo, se enfrenta a un grave tema de corrupción. No se trata de hacer leyes, se trata de hacer justicia. “Buscad el reino de Dios y su justicia y lo demás se os dará por añadidura” (Mt. 6, 33). “No está hecho el hombre para el sábado, sino el sábado para el hombre” (Mc. 2, 27)) El déficit de justicia en África es elevado y esta es una realidad pendiente en la sociedad y política africana.

Existencia y naturaleza del ser supremo

Los primeros exploradores hicieron mucho daño con sus estudios poco fundados y llenos de prejuicios, basados sobre todo en la ignorancia que tenían de las lenguas africanas de los pueblos y culturas que analizaban. Es conocido el estudio del explorador británico, Samuel Baker, en un informe que en el año 1866 envió a la Sociedad Etnológica de Londres, afirmaba:

Todos estos pueblos, sin excepción alguna, carecen de credo en el ser supremo, así como de toda forma de adoración o idolatría. Las tinieblas de su mente no están iluminadas ni siquiera por un rayo de superstición. Su inteligencia está tan estancada como las innumerables ciénagas que pueblan su mísero mundo.

“Nadie enseña a un niño sobre el ser supremo”, dice un proverbio ashanti. Es una forma elocuente de expresar la convicción de que la existencia de Dios es de evidencia inmediata y no fruto de un aprendizaje o de una demostración. En casi todos los pueblos de África se encuentra la creencia en un ser supremo, al cual se le conceden una serie de atributos enunciados generalmente no de forma abstracta –al estilo de la teología occidental-, sino visualizados en acciones concretas. Dios es, por ejemplo, el que “moldea los niños en el vientre de sus madres”, como dicen los baganda; es “el que sopla” o “el que cae”, como dicen los tonga, significando con ello que es Él quien hace soplar el viento o caer la lluvia.

El nombre propio con que Dios es conocido en muchos lugares expresa ya algún atributo. Para los ngombe, Dios es “el que dura por siempre en la selva” (la selva simboliza la eternidad). Los ila y los baluba vinculan su naturaleza eterna con la aparente interminable duración del sol y le llaman “el de los muchos soles”. Los zulúes lo llaman “el que es más grande que todos” (*Baba Nkulu Nkulu*), o también “el que vino a la existencia por si mismo”.

El lenguaje puede a veces inducir a creer que hay una identificación entre Dios y determinados fenómenos de la naturaleza, tales como la lluvia, la tormenta, el sol... En

el norte de Nigeria, la misma palabra sirve para designar a Dios y al sol. Sin embargo, se marca la distinción mediante sufijos. Dicen, por ejemplo: “El sol cae al atardecer, pero el Sol está todavía allí”. Es también frecuente que un único vocablo signifique a la vez Dios y firmamento. Pero, igualmente en este caso, el idioma mismo –y no sólo el contexto- dispone de recursos para distinguir si se está hablando del uno o del otro.

Algunos pueblos ponen mucho énfasis en la lejanía e inaccesibilidad de Dios. Los lunda dicen que su verdadero nombre no se puede saber, porque es demasiado alto para nosotros, y le llaman “el desconocido”; los ngombe, por su parte, le llaman “el inexplicable”. Los Akamba dicen que *Mulungu* (Dios) “es el que está solo”; nadie le invoca, ni siquiera en la dificultad. No se le imagina como alguien con el que pueda haber una relación personal. Hay alguna tribu que parece tener una idea muy vaga de Dios. Creen que algún día pasó por la tierra, pero que se fue de ella y no se sabe ni dónde está ni lo que hace. Entre él y los hombres se han interpuesto los antepasados que son los que intervienen en los asuntos humanos. Los suazi creen que, si alguna vez Dios diese directamente alguna señal de sí mismo, sería muy peligroso y habría que interpretarlo como el presagio de una catástrofe.

Es por eso que Dios es la gran riqueza de África. El concepto de ateísmo entre los africanos es prácticamente inexistente. Es precisamente el concepto de Dios o de un ser supremo, que unifica a todo el continente. Desde el Dios cristiano de su Hijo Jesucristo a las aproximaciones respetuosas de las grandes religiones tradicionales africanas hay un caudal religioso que no puede ser ignorado.

África es una Iglesia misionera

Para entender esta dimensión, que entra completamente en la visión de una Iglesia en “salida” como pide el Papa Francisco, será necesario entrar en una dinámica de reciprocidad. Ya no somos desde Europa una iglesia que da (dinero, vocaciones, asistencia sanitaria, profesorado, agentes de pastoral, proyectos agrícolas) somos también desde Europa una Iglesia que necesita ser evangelizada, necesita agentes de pastoral externos. Somos una iglesia que debería activar con más persistencia apostólica los catecumenados para iniciar procesos de conversión y catequesis. Nuestras iglesias de Europa deberían involucrar mucho más al mundo laical, tal como ya está haciendo África en muchas áreas pastorales. Es decir tenemos que convencernos y decir de corazón que debemos ser una iglesia que está dispuesta a recibir.

Por otro lado África debe retirar esta mano siempre extendida para pedir y ser una Iglesia donde cada vez tiene más capacidad de extender la mano para dar: comunidades con vitalidad cristiana, vocaciones sacerdotales y a la vida religiosa, testimonios de fe y de persecución, etc.

Una Iglesia donde el “Motho ke motho ka batho”, es una práctica pastoral que vive y comparte la misma fe en el Cristo muerto y resucitado (Hechos de los Apóstoles 14, 21-28), una iglesia joven que da y recibe; que vive su fe en comunidad y trabaja en comunión en las labores pastorales.